

BERTSO BERRIAK

Ezin-emanaldia



DANI BLANCO

Xabi Paya



Doinua: Bogart eta Bilintx

Donostiako Zinemaldia badator gogoz betea baina desio zitekeen beste ez du zabaldu atea, bi ordezkari gabe gelditu baita euskaldun artea, justu gatazkaz dabiltzan film bi... A zer kasualitate! Zeinen zaila den leihua baino, ispilua izatea.

“Gazta zati bat”, izan nahi duten herri biren arazoa; eta “Barrura begiratzeko leihoak”, presoei soa; halako zerbait erakustea izango zen kolapsoa, beraz, hobe da omititzea euskal gizarte osoa, ezerk ez dezan hondatu gero krispeten usain gozoa.

Zinemaldiak film bientzako marko bikaina zekarren, baina ez omen dute mailarik ez kanpo eta ez barren; baina motibo politikorik ez dela azaldu arren, herri zahar honen mesederako jar zitzaketen pozarren, problema ez baita desagertuko pantailan ez jartzearren. ■



Iñaki Antigüedad

♦ EHUko IRAKASLEA



DANI BLANCO

Urriko hitzorduaren harira

ZALANTZA UXATUA DA. Urriaren 21ean izango da hitzordua, aparteko ezaugarriak dituen. Aro politiko berrian Euskadi mailako lehenengo hauteskundeak izango dira. Gainera, gauzak argituz doaz azkeneko denboran, nahitaez, batzuen elastikoak mugak ezagutu dituela. Egia da apartheid aurretik sentsibilitate politiko guztiek zeukatela hauteskundeetan parte hartzeko aukera; baina egoera guztiz berria da, aroan arokoa, ezkerreko subiranistak bilduta aurkeztea esparru horretako hitzordura, iazko maiatzean hasitako hitzorduen sekuentziari bide estrategikoan beharrezko segida emateko. Funtsezkoa zait gogoratzea *Euskal Herria Zutik* ebazpenarekin gauzatu zela ezinbesteko inflexioa. Politika ulertu eta egiteko bestelako moduaz jabetzeaz gain, aldaketak eragiteko hiru esparru zehaztu ziren han, instituzionala, mobilizazioa eta ideologikoa; hiru, eta hirurak, uztarrian. Ezin ahaztuzkoa da hori, oraingorik urriko hitzorduar aritu arren.

Euskal Herrian aldaketak behar ditugu, asko eta askotarikoak, marko politikoan eta sozio-ekonomikoan, bietan aldi berean, nahiz eta bide-orrian tarteko helmuga diferenteak izan espazioan eta denboran. Baina hau da, nire ustez, aro berria bultzatzean ikasitako ikasgai han-

dia, aldaketek trantsizioa behar dute, eta trantsizioak aldeko baldintzak. Hortaz, aldeko baldintza berriak sortu eta lehendik zirenak sendotu behar ditu EH Bil-duk, pedagogiaz eta sinesgarritasunaz, ikuspegi politiko-teknikoan beraz, eta sortze-sendotze horretan urriko hitzordua funtsezkoa da. Markoak aldatzeko baldintzak berez ditugula pentsatzeak, are gehiago, historiakoak direla usteak, esparru ideologikoaren beharra aragotu egiten du, falazietan jausiko ez bagara, behintzat.

Kontua ez da urriko horretan zikloz aldatzea, norabideaz aldatzea baizik. Honetara dator baldintzena, hitzordu horrek Euskal Herri osoan urtetako eremu sozio-politikoa markatuko duelako, eta ez naiz ikuspegi instituzional hutsetik begiratzaren ari. Norabide berritik frontearen eskema zaharkitu interesatua gauditu beharra dago, gizartearen sektore zabaletan aldeko baldintza berriak sortze aldera. Eskema horren aurrean, konfrontazioan, ereduaren eskema jarri behar da, marko politikoan eta sozio-ekonomikoan eragin nahi ditugun aldaketen eremua aulkitik ez ezik kaletik eta burutik defendatuz. Burujabetza gehiengo baten behar gisa aurkeztu behar dugu, boterearen gertutasuna lehenetsiz. ■

